

KONTINGENTZIA PLANA COVID-19

2.1 bertsioa (2020-12-21)

2020-21 ikasturtea

DOLORES IBARRURI BHI

014010

ABANTO-ZIERBENA



AURKIBIDEA

	Orrialdea
0. SARRERA	1
1. EGOERAREN DESKRIBAPENA	1
1.1. PERTSONEN MUGIKORTASUNA.	2
1.2. IKASLEEN ESPAZIOAK ETA TALDEAK	3
2. APLIKATU BEHARREKO PREBENTZIO-NEURRIAK	3
2.1. IKASTETXERA SARTU AURRETIKO PREBENTZIO-NEURRIAK	3
2.2. IKASTETXERA SARTZEKO PREBENTZIO-NEURRIAK	4
2.3. IKASTETXEKO EREMUETAN ERABILTZEKO PREBENTZIO-NEURRIAK	5
2.4. KOMUNAK ERABILTZEKO PREBENTZIO-NEURRIAK	7
2.5. IGOGAILUA ETA ESKAILERAK ERABILTZEKO PREBENTZIO-NEURRIAK	7
2.6. LANGILEEN ALDAGELAK ERABILTZEKO PREBENTZIO-NEURRIAK	8
2.7. JATEKO-GUNEAK ERABILTZEKO PREBENTZIO-NEURRIAK	8
3. ANTOLAKETA	9
3.1. 1. AGERTOKIA	9
3.2. 2. AGERTOKIA	9
3.3. 3. AGERTOKIA	10
4. GARBIKETA ETA AIREZTAKETA	10
5. KASUEN KUDEAKETA	12
6. KOORDINAZIOA	13
7. PARTE-HARTZEA, KOMUNIKAZIOA ETA PRESTAKUNTZA-.....	14
8. ERANSKINAK	16

0. SARRERA

Kontingentzia Plana honen xedea da **personen segurtasun eta osasun-baldintzak bermatzea institutuko jardura guztiak garatzeko**, hau da, gure ikasleek kalitatezko hezkuntza segurtasun eta osasun-baldintzetan izateko duten eskubidea bermatzea, bai ikastetxeko langileentzat, bai ikasleentzat, hezkuntza-sistemaren berezko jarduerak egin ahal izan daitezen, arriskua ahalik eta gehien murriztuz.

Plan honetan adierazitako neurrien helburua da birusaren eraginpean egonak izan litezkeen ikasleek eta langileek COVID-19 hedatzeko aukera prebenitzea eta saihestea.

Kontingentzia Plan hau osatzeko COVID-19-ri buruzko Hezkuntza Sailak eta LAP Zerbitzuak ezarritako aginduak, aholkuak eta informazioak izan dira oinarri:

<https://www.euskadi.eus/koronabirusari-buruzko-informazioa/web01-s2hhome/eu/>

<https://www.euskadi.eus/covid-19-eta-laneko-arriskuen-prebentzioaren-arloko-informazio-orokorra-eta-baliabideak/web01-a2hsprl/eu/>

Plan honen iraupena 2020-2021 ikasturtearen amaiera arte ezartzen da, osasun egoeraren aldaketak direla eta, Osasun edota Hezkuntza Sailaren agintarien beste agindurik ez balego.

Kontingentzia Plana honen neurriak eguneratu egingo dira beharrezkoa denean, egoera epidemiologikoaren aldaketek hala eskatzen badute.

Kontingentzia Plan honetan ezarritako babes neurri eta jokabide desberdinen berri Klaustroan, OOGn eta OOGko Laneko Arriskuen Prebentziorako Batzordean emango diegu. Aipatutako erabakitze organoetan eztabaidatua eta onartua ere izango da.

Departamentu guztietan eskuragarri egongo da Kontingentzia Planaren kopia bat, momentu oro, zalantzak izanez gero, nola jokatu jakiteko.

1. EGOERAREN DESKRIBAPENA

DOLORES IBARRURI BHIan dauden hezkuntza-mailak, taldeak eta maila eta talde bakoitzean ikasten duten ikasleak COVID arduradunak eskuragarri izango ditu edozein momentuan.

Ikasle bakoitzeko informazio hau ere izango du eskuragarri COVID arduradunak harreman estuak identifikatzeko: ikaslearen tutore legala, ikaslearen telefonoa eta gune eta talde bakoitzeko ikaslearen kokapena.

Talde bakoitzeko irakasleak eta taldeen ordutegiak ere COVID arduradunak eskuragarri izango ditu edozein momentuan.

KONTINGENTZIA PLANA COVID-19

2020-21 ikasturtea

1.1. PERTSONEN MUGIKORTASUNA.

Ikastetxera sarrerak eta irteerak ez dira aurreko ikasturtean egiten genuen bezalakoak izango. Ikasleak, batetik, ez dira denak batera institutura sartuko ez irtengo eta, bestetik, ikasle guztiak ez dira leku beretik sartuko ez irtengo.

Ikasleen sarrerak mailakatzeko, ikastetxerako sarbidea gaituko da ikastetxera iristen diren heinean, eta ez da utziko jendea pilatzen eta geldirik geratzen sarrerako patioan eta kalean. Ikastetxeko irteeren kasuan, irteera mailakatu erraztuko da, irakasle bakoitzak bere saioa amaitzen duen heinean, eta ez da utziko jendea pilatzen eta geldituta geratzen sarrerako patioan eta kalean.

Ikasleak sartuko eta aterako dira institutura bi multzotan banatuta, pertsonen pilaketa saihesteko asmoz: DBHko 1., 2. eta 3. mailako ikasleak atariko sarreratik eta gainontzeko ikasleak aldageletako alboan dagoen ate gorriko sarreratik.

Irakasleak eta irakasleak ez diren langileak atarirako sarreratik sartuko dira institutura.

Bisitariak atarirako sarreratik sartuko eta aterako dira institutura.

Korridoreetan eta eskaileretan oinezkoentzako ibilbideak ezarriko ditugu, seinale horizontalak eta bertikalak erabiliz.

Korridoreetan eta eskaileretan ezin izango gara inoiz geldirik egon, pertsonen pilaketak saihestuz.

Geletara sartzean pilaketak ekiditeko, gelak irekitzeko ikasleen arduraz oinarritutako, eta institutuan urteetan erabilitako, sistema bertan behera geratzen da behin behingoz normaltasuneko egoerara bueltatu arte. Geletako ateak, ondorioz, itxita baina sarraila jarri gabe egongo dira goizean, gela aldaketetan, atsedendaldietan eta jardunaldian amaitzean.

Segurtasun-tartea mantenduko dugu korridoreetan, eskaileretan, atarteetan eta abarretan. Horretarako pertsona guztien ardua behar dugu. Behar-beharrezkoak diren joan-etorriak baino ez dugu egin behar, pertsonen artean hitz egin gabe eta talderik osatu gabe; nahikoa izango da hurbilketarik egin gabe urrutiko agurra egitea.

Alferrikako joan-etorriak saihestu behar dira. Kontsultak edo zalantzak, ahal bada, bide telematikoz edo telefonoz ebatziko ditugu, joan-etorriak ahalik eta txikiak izan daitezzen.

Ikasleak ahalik eta gutxien aldatuko dira gelaz, beharrezkoa denean bakarrik, hau da, aukerako ikasgaietako edo ikasgai espezifikotako geletara, bikoizketa geletara eta informatika geletara. Nolanahi ere, ahaleginak egingo ditugu ikasle-taldeek egiten dituzten joan-etorriak ahalik eta gehien murrizteko, eta, ahal den guztietan, irakasleak izango dira erreferentzia-gelara mugituko direnak. Ikasleek talde-gelatik gela batera irten behar duten guztietan dagokion irakaslearekin joan eta etorriko dira.

1.2. IKASLEEN ESPAZIOAK ETA TALDEAK

Institutuko espazio komunen eta gelen pertsonen edukiera (aforoa) kalkulatzeko, pertsona bakoitzeko 2,25 m²-ko espazioa hartuko da erreferentziatzat.

Taldeko geletan kalkulaturako pertsonen edukiera taldeko ikasle kopurua baino txikiago baldin bada ezin izango dugu kalkulaturako edukiera errespetatu eta, ondorioz, irakaskuntza prozesuaren ziurtasun sanitarioa mantentzeko ahalegin handiagoak egin behar izango ditugu, plan honetan adierazitako neurriak zorrotz betez.

Pertsonen edukiera ezin bada bete ez dugu espazioaren kanpoko aldean seinalatuko.

Institutuko beste eremu batzuetan pertsonen edukiera (aforoa) ezarriko da eta seinale batekin adieraziko da dagokion sarreran. Aforoa adierazita duten lekuetan, beraz, aforoa errespetatu behar dugu. Hau da, ezin izango gara aldi berean egon pertsonen edukierak adierazten duen pertsona kopurua baino jende gehiago.

Ikasleak parte hartzen duen talde bakoitzean, eserleku bat esleituko zaio. Berdin jokatu da jantokian eta garraioan. Oso garrantzitsua da kokapenetan aldaketaren bat dagoenean ahalik eta azkarren ikastetxeko COVID arduradunari esatea.

Geletan mahaiak banaka kokatuta egongo dira.

2. APLIKATU BEHARREKO PREBENTZIO-NEURRIAK

2.1. IKASTETXERA SARTU AURRETIKO PREBENTZIO-NEURRIAK

Edonork (eta ikasleek bereziki), institutura etorri baino lehen, tenperatura kontrola egin behar izango du derrigorrez bere etxean. Sukarra izanez gero (37° C baino altuago) ezin izango da ikastetxean etorri eta lurraldeko mediku-zerbitzuekin harremanetan jarri behar izango du. Pertsona horrek beste sintomaren bat badauka (eztarriko mina, eztula edota aire-gabeziaren sentazioa) ez du etorri behar institutura eta deitu behar izango du bere osasun-zentrora edo larrialdietara (sintomatologiaren larritasunaren arabera).

Ez dugu institutuan sartuko den inori tenperatura neurtuko, ez badu espresuki eskatzen.

Ikastetxera sartu eta eskularruak daramatzaten pertsonak kendu egin beharko dituzte zentrora sartu aurretik. Modu egokian kenduko ditu eta eraikineko sarrera eremuan horretarako ezarritako edukiontzietan utziko ditu. Ez da gomendagarria soluzio edo gelak eskularruen gainean botatzea, azaleko produktu desinfektatzaileak baitira.

Institutuko eraikinaren eremu guztietan (sarreran, geletan, bulegoetan, irakasle gelan, etab.) gel edo soluzio hidra-alkoholikoaren banatzeko gailuak jarriko ditugu, bertara sartuko diren pertsonak eskuak garbitu ditzaten zentroko instalazioak ukitu aurretik.

Kontuan hartu behar da zentroko elementu guztiak lanaldia amaitzean garbitzen direla; beraz, zentrorra eskuak garbitu gabe sartzeak eremu garbiak kutsatzeko arriskua areagotzen du.

Komeni da noizean behin eskuak urez eta xaboiz garbitzea. Kontuan izan behar dugu eskuak gelekina edo soluzioekin lau zapabost aldiz garbitu ondoren eskuak behar bezala garbitu behar direla urarekin eta xaboiarekin.

Tailerretan, laborategietan eta objektuak partekatu behar diren eremu guztietan, ikasleek eskuak garbitzeko neurriak zorrotz beharko dituzte.

Harremanak mugatze aldera, garraio aktiboa sustatuko da (oinez edo bizikletaz). Ikastetxerako ibilbide segurua sustatzen eta bizikletentzako aparkalekuak handitzen saiatuko gara, udalekin lankidetzan.

Eskola-garraio kolektiboaren kasuan, COVID-19ren aurkako prebentzio-neurriak buruz indarrean dagoen araudia aplikatuko da. Ikasle bakoitzak autobusean eserleku jakina edukiko du eta, ondorioz, COVID arduradunak autobus bakoitzean garraiatzen diren ikasleek zerrenda izango du eta autobusean zein lekutan esertzen diren jakingo du. Ikasle guztiek eta gainerako langileek maskara erabiliko dute une oro.

2.2. IKASTETXERA SARTZEKO PREBENTZIO-NEURRIAK

Zentrorra sartzean eta handik irtetean segurtasun-distantzia mantendu behar dela jakinaraziko zaie langileei, ikasleei eta bisitariari, pertsonen pilaketak saihesteko.

Bisitariak (gurasoak, kanpoko langileak, etab.) irakasleek edo zuzendaritza-taldeak hala eskatzen badute bakarrik sartu ahal izango dira eskola-eraikinerara, betiere prebentzio-eta higiene-neurriak betez, eta inola ere ez COVID-19rekin bateragarria den sintomarik badute. Aurretiko zita erabiliko da, ahal den guztietan, jendearen arreta bermatzeko.

Familiekin telefonoz, posta elektronikoz, mezuz edo posta arruntez komunikatzea lehenetsiko da, eta kudeaketa telematikoak erraztuko dira.

Jende gehien dagoen orduetan eta jendearen presentzia dagoen orduetan arduradun bat ezarriko dugu sarrera eta irteera kontrolatzeko.

Ikastetxeko langile eta ikasle guztiek nahitaez maskara erabili beharko dute espazio guztietan eta une oro. Maskara nahitaez erabili beharko da, nahiz eta ikasleak zein langileak eserita egon eta 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia gorde.

Eraikinean sartzeko edonori maskararen erabilera derrigorrezkoa dela adieraziko zaio. Hala ere, pertsonaren bat maskarik gabe baldin badator, bat emango diogu. Pertsona guztiek maskara era egokian jarrita eraman beharko dute institutuaren eremu osoan dauden bitartean, bai eraikinean, bai kanpoan.

Ikasle bakoitzak bere maskara ekarri behar izango du egunero.

Institutuak maskara kirurgikoak izango ditu irakasleen eta irakasleak ez diren langileen eskura eta, behar izanez gero edo ahaztuz gero, ikasleen maskarak birjarri ahal izateko. Irakasleentzat departamentuen bitartez eta irakasleak ez diren langileentzat eta ikasleentzat atezaintzan.

Babes pantailak ere eskuragarri izango ditugu irakasleentzat eta irakasleak ez diren langileentzat.

2.3. IKASTETXEKO EREMUETAN ERABILTZEKO PREBENTZIO-NEURRIAK

Oro har, segurtasuneko pertsonen arteko distantzia 1,5 metrokoa izango da, gutxienez, ikastetxeko pertsonen arteko interakzioetan. Pertsonen arteko distantzia maskararen erabilerarekin eta gainerako prebentzio-neurriekin osatuko da, distantzia hori bermatu ezin denean, osasun-agintariek une bakoitzean adierazitakoaren arabera.

Ikasle bakoitzak bere erreferentzia-gelaren barruan eserleku bat izango du esleituta eta beti leku berean egon behar izango du eserita. Mahaiak banaka kokatuta egongo dira. Eserleku horren kokapena lurrean egongo da seinalatuta eta saio guztien hasieran eta amaieran mahai bakoitzak lurrean seinalatutako lekuan egon behar izango du.

Ikasleentzako fotokopien zerbitzua kendu da. Ikasleei ez zaie fotokopiarik egingo, nahiz eta irakasleek eskatuta eskatu.

Idazkaritzan, bulego tramiteak egiteko ziurtasun distantzia mantendu ezin denez, bereizte-holtzak erabiliko ditugu.

Zentroko espazio komunetan aldi berean dauden pertsonak elkartzea saihestuko da. Pertsonen edukiera (aforoa) mugatuko da eta, ahal denean, 10 lagunetik gorako pertsona elkartzerik saihestuko da, edonola ere, beti pertsonen arteko distantzia mantenduz eta maskara jantzita.

Ebaluazio bilerak eta, oro har, irakasleen bilera guztiak, modu telematikoan egitea hobetsiko dugu. Dena den, bileraren bat aurrez aurre egitea erabakitzen badugu, prebentzio-neurriak hartuko ditugu, hala nola, pertsonen arteko distantzia mantentzea, maskara beti jantzita egotea, aireztapen egokia izatea eta elementu komunak desinfektatzea. Nolanahi ere, 6 pertsona baino gehiago biltzen bagara edo bilera batek ordubete baino gehiago iraungo duela aurreikusten badugu, bilera modu telematikoan egingo dugu.

Ikasleekin edo gurasoekin egingo ditugun lan bilerekin, hots, OOGko bilerekin eta abarrekin, 6 pertsona baino gehiago biltzen bagara edo bilera batek ordubete baino gehiago iraungo duela aurreikusten badugu, bilera modu telematikoan ere egingo dugu, baliabide telematikoaren erabilera ez bada oztopo bat bilera aurrera eramateko.

KONTINGENTZIA PLANA COVID-19

2020-21 ikasturtea

Jarduera fisikoak, musika eta abar banakako ekintzen bidez planifikatuko dira, ahal dela.

Gimnasioa eta polikiroldegia erabili ahal izango ditugu baina jarduera fisikoak banaka planifikatuko dira nagusiki.

Ikasleek ezin izango dituzte dutxak erabili. Gorputz hezkuntzako jarduera, beraz, oztopo honetara egokitzea komenigarria izango da. Aldagelen erabilera, ondorioz, ezin izango da era normalean egiten den bezalakoa eta segurtasuneko pertsonen arteko distantzia (1,5 m.) gordetzeko neurriak ezarri beharko dira, esaterako, beste alboko espazioak erabiltzea.

II. eranskinean jasotzen da jarduera fisiko arautuari buruzko araudi espezifiko eta zehatzena.

Talde eta maila guztietako ikasleak ezin izango dira beren gelatik irten saio-aldaketetan, korridoreetan pilaketak eta kontaktu masiboak saihesteko.

Atsedendietan liburutegia itxita egongo da.

Ikasleak geletatik atsedenaldira aterako dira maila bakoitzak esleitutako sarreratik era mailakatu naturalean. Atsedenditik geletara bueltan ikasleak bost minutu lehenago hasiko dira ikastetxean sartzen era mailakatuan. Horretarako aurretik erabili duten sarrera berdina erabiliko dute.

Ikastetxeak hiru patio ditu (aurreko txikia, atzeko txikia eta atzeko handia), sarrera gune estalita, Elkargunea eta polikiroldegia ere baditu. Gune zabalak eta ezberdinak badira, nahikoak DBHko ikasle guztiak era egokian jasotzeko. Horregatik, atsedendian ez ditugu ikasleak taldekatuko gune desberdinen erabilerarako; hori bai, aginduak dioenez, ezin dira 10 ikasle baino gehiagoko taldeak sortu eta ezin izango da kontaktu-jolasik egin. Elkargunea beti egongo da irekita institutuko sarrera gunea handiago izateko. Euria egiten duenean polikiroldegia ere irekiko dugu.

Ahal den neurrian, lehenasuna emango diogu aire zabaleko espazioak erabiltzeari hezkuntza-jarduerak egiteko.

Ahaleginak egingo ditugu ikasleen talde-lanak telematikoki egiteko.

Ez ditugu aurreikusten ikastetxetik kanpo gaua ematea dakarren jarduerarik, ezta ekintza osagarriak ere.

Ez ditugu aurreikusten ikastetxeko kirol-ekitaldiak, ospakizunak edota jaiak.

Irakasleen zaintzak egoera berri honi egokitzeke antolatuko ditugu eta irakasle guztiok zorrotz eta era oso dinamikoan bete behar izango ditugu.

Eskola-egun normalean, irakasle bat lanera etorri ezin denean egiten ditugun zaintzak jolastokian egin ahal izango ditugu, eguraldiak horretarako aukera ematen badu eta, beti, plan honen prebentzio neurriak betez.

Irakasle batek atsedenaldiko zaintza egin behar badu eta eskola ematen ari bada, zuzenean atera behar izango du jolastokira talde horretako ikasleekin bost minutu lehenago, plan honetako prebentzio-neurriak betez.

Lan-material, mahai, ordenagailu eta abar bereziak erabiliko dira. Boligrafoak eta gainerako eskola elementuak partekatzea ere saihestuko da. Partekatu behar izanez gero, garbiketa sakona ziurtatuko da erabilera bakoitzaren aurretik.

Paperaren kasuan, esku desberdinetatik pasatzea eta, ondorioz, pertsona asko manipulatzeko saihestu behar izango dugu. Azterketekin nola entregatu eta jaso antolatuko dugu, irakasleen eta ikasleen arteko harreman zuzena saihestuz. Irakasleak azterketa mahai gainean utziko du eta amaitzean jasoko du azterketarien postu bakoitzean, horiek bertan ez daudela. Lan-prozedurak ahalbidetzen badu, azterketak bi egun "lo egiten" utz daiteke, arreta-neurri gisa

Gela bakoitzak eta irakasleentzako lan-espazioak eskuak desinfektatzeko gel hidroalkoholikoa eta paperezko botatzeko zapiak izango ditu, bai eta erabili eta botatzeko materiala (paperezko zapiak) baztertzeako ontzi edo paperontzi espezifikoak ere.

Institutuak gela bat jarri du zentroan COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak isolamenduan eduki ahal izateko: institutuko sarrera-atarian dagoen bisita gela. Gela horrek aireztapen ona dauka, bai eta maskarak, hidrogelak eta poltsadun pedalezko paperontzi bat ere.

2.4. KOMUNAK ERABILTZEKO PREBENTZIO-NEURRIAK

Bainugeletako pertsonen edukiera errespetatu behar izango dugu eta itxaron behar izatekotan, ziurtasun distantzia mantenduko dugu (1,50 m).

Ikasleen bainugelaren erabilera jardunaldiaren zehar bultzatuko eta baimenduko dugu, era ordenatuan, bai behar fisikoak betetzeko bai eskuak garbitzeko.

Atsedendietan ikasleek ezin izango dituzte bainugelak erabili, pilaketak saihesteko.

Atzeko patioaren ate gorriaren alboan dauden bainugelak erabiliko ditugu atsedendietan, era ordenatuan, banan-banan eta kanpoko aldean itxaron behar denean ziurtasun distantzia mantenduz.

Komunak banaka erabiliko dira, partekatzea saihestuz.

Estalkia duten konketetan katetik botako da estalkia itxita duela.

Komunetik irten baino lehen, erabili duenak eskuak garbituko ditu, txorrota papera erabiliz ireki eta itxiko du, eta, gainera busti bada, lehortu egingo du.

Ikastetxeko komun guztietan, xaboia eta eskuak lehortzeko papera daudela ziurtatuko dugu. Ikasleentzako komunetan xaboia eta paperaz egoteaz garbitzaileak arduratuko dira. Irakasleentzako komunetan, aldiz, atezainak arduratuko dira.

2.5. IGOGAILUA ETA ESKAILERAK ERABILTZEKO PREBENTZIO-NEURRIAK

Igogailua salbuespen gisa erabiliko da eta pertsona bakarra joan ahal izango da barruan. Erabiltzaileak, igogailuan sartu ondoren, geroago botako duen paperezko zapiarekin edo non-touch izeneko gailuarekin botoiak sakatuko ditu.

Eskailerak igotzean edo jaistean, aurretik igotzen edo jaisten ari den pertsonarekin lau maila inguru uztea gomendatzen da.

Eskaileretako eskudelak ezin izango ditugu erabili eta ez ukitzeko babes zinta jarriko ditugu.

Eskailera jaisten duen pertsona batekin gurutzatzean nahikoa da agurtzeko keinu bat egitea. Eskaileretan ez gara geldituko hitz egiteko edo galdetzeko, eskaileretan segurtasun-distantzia mantentzea konplexuagoa izan baitaiteke.

2.6. LANGILEEN ALDAGELAK ERABILTZEKO PREBENTZIO-NEURRIAK

Aldageletan distantzia errespetatu beharko dute; beraz, horiek erabiltzeko txandak eta okupazio-seinaleak ezarriko ditugu.

Aldagelara sartzean eta handik irtetean eskuak garbitzea komeni da, eta ordena eta garbitasuna mantentzea.

2.7. JATEKO-GUNEA ERABILTZEKO PREBENTZIO-NEURRIAK

Ikasleek ezin izango dute ez jan ez edan ikastetxeko ezein gunetan, jolastokian izan ezik atsedenaldiak dirauen bitartean, eta betiere segurtasun-distantzia mantenduz. Une horretan bakarrik jaitsi ahal izango da maskara, jan edo edan ahal izateko.

Ikasleek ura edan ahal izango dute komunera joaten direnean, baina ezin izango dute zuzenean komunitako txorrotetatik edan. Horretarako, botila edo edalontzi pertsonal bat erabili beharko du, etxetik ekarri beharko duena eta partekatu ezin izango duena. Eskoletan, irakaslea bertan badago eta haren baimenarekin soilik har daiteke ura. Jolastokian ura edan daiteke, ez baitu hodiarekin kontakturik.

Ikasleentzako jantoki-zerbitzua berrantolatuko dugu.

Ikasleen edukiera mugatuko dugu jankideen artean 1,50 metroko distantzia bermatzeko. Behar izanez gero, jangelatik gertu dagoen gela osagarri bat erabiliko dugu jangela-zerbitzua bermatzeko.

KONTINGENTZIA PLANA COVID-19

2020-21 ikasturtea

Bi bazkari-txanda antolatuko ditugu, hala eskatzen duten familia guztiek jantoki-zerbitzurako sarbidea dutela bermatzeko. Jantokiko arretako langileen ordutegia luzatuko da.

Garraiatutako ikasleek lehentasuna izango dute jantoki-zerbitzua jasotzeko.

Mahaikideek banakako mahai batean bazkalduko dute, eta beti esleitutako eserleku berean. Mahaiak esleitzeko, talde naturalak hartuko dira kontuan, ahal den neurrian, gelako ikaskideek hurbil jateko.

Eskuak garbitu beharko dituzte jan aurretik, modu ordenatuan, pixkanaka, komunetan pilaketarik egon ez dadin. Jaten amaitzean, eskuak garbituko dira soluzio hidroalkoholikoarekin.

Jankideek ezin izango dituzte jateko tresneria partekatu.

III. eranskinean jasotzen da ikasleek jantokia erabiltzeari buruzko araudi espezifiko eta zehatzena.

Irakasleek bazkaltzeko bakarrik erabili ahal izango dituzte horretarako jarritako espazioak eta aparatuak, betiere erabiltzaileen arteko segurtasun-distantzia mantenduz. Erabiltzaileak botoiak sakatuko ditu paperezko zapiekin (ondoren botako du) edo "non-touch" gailu batekin. Bulego edo ikasgela batean jan ahal izango da, banaka eta salbuespen gisa; nolana ere, ondoren garbitasuna eta desinfekzioa ziurtatuko dira.

Irakasleentzako kafe-makina erabilgarri egongo da, beti ere erabiltzaileen arteko ziurtasun distantzia mantenduz. Erabiltzaileak botako dituen paperezko zapiekin edo non-touch izeneko gailuarekin botoiak sakatuko ditu.

3. ANTOLAKETA

Ikasturtea antolatzeko 3 agertoki desberdin aurreikusten dira:

1. Agertokia: Ikasle guztientzako aurrez aurreko irakaskuntza-jarduera.
2. Agertokia: aurrez aurreko jarduerak eta jarduerak telematikoa txandakatu eta aldi berean egin.
3. Agertokia: konfinamendua, irakaskuntza-jarduera telematikoa.

3.1. 1. AGERTOKIA: IKASLE GUZTIENTZAKO AURREZ AURREKO JARDUERA

Maila bakoitzeko saio kopurua eta saioen iraupena ez da aldatuko, saio bakoitzak 55' iraupena izango du.

Ikasleen sarrera mailakatu eta berezitu izango da eta bi sarreretan atezainak eta zaintzako zuzendaritzako kideak egongo dira konprobatzeko ikasle guztiek dutela maskara jarrita.

Jarduera telematikoa ez da aurreikusten, baina irakasle bakoitzak aukeran izango du etxean konfinaturik dagoen ikasleentzat 3. agertokiko atalean zerrendatzen ditugun baliabideak erabiltzea.

3.2. 2. AGERTOKIA: AURREZ AURREKO JARDUERA ETA TELEMATIKOA ALDI BEREAN

Ordutegia eta ikastetxera datozen ikasleen baldintzak ez dira aldatuko. Ikasturtea antolatzeko ebazpenean azaltzen den moduan, ikastetxera etortzeko lehentasuna behar gehien dituzten ikasleak izango dira.

Gela guztietan webcam bat egongo da klaseak aldi berean telematikoak eta aurrez-aurrekoak izan daitezten.

2. agertokia indarrean jarriko da Hezkuntza Sailak horrela adierazten duenean edo talde batean, COVID dela eta, ikasleen %20 etxean konfinaturik egongo den bitartean, hau da, 4 – 5 ikasle gelako.

Jarduera telematikoa aurrera eramateko 3. agertokiko atalean zerrendatzen ditugun baliabideak erabiliko ditugu.

3.3. 3. AGERTOKIA: KONFINAMENDUA

Egoera honetan ikasle guztiek etxetik lan egingo dute. Hainbat baliabide digital erabiliko dira ikasleekin lanean aritzeko: Google Classroom, Moodle, Google Meet, Google Gmail eta abar.

Ikasleak egin behar duten lana antolatzeko, Institutuko web gunean, talde bakoitzeko asteko taula jarriko da, **ETXERAKO LAN PLANA** izenburu pean. Bertan, irakasleek gelako lana, etxeko lanak, Google Meet saioak edota azterketak idatziko dituzte. Era honetan gurasoek ere ahal izango dute ikusi seme-alabek dituzten lanak. Hauxe da baliabide honen esteka:

<https://doloresibarruribhi.eus/wp-content/uploads/2020/10/Taldeak-20-21.pdf>

Etengabeko komunikazioa egongo da tutore eta gurasoen artean lanaren jarraipena egiteko baita ikasleek eduki ditzaketen baliabide falta detektatzeko eta erantzuna emateko ere, institutuko posta elektronikoko korporatiboaren bitartez eta, behar izanez gero, telefonoz.

Ikastetxea ez da inoiz itxita egongo, familiei behar duten arreta emateko, lan administratiboa egiteko, irakasleek lan egin ahal izateko, arazo informatikoak eta arrakala digitala saihestekoak egiteko, mantenu obrak egiteko eta garbiketa egiteko eta abar.

4. GARBIKETA ETA AIREZTAKETA

Erabilitako espazioak, ukitzen diren gainazalak eta abar garbitzeko eta desinfektatzeko, garbiketa egiteko honako jarraibideak jarraituz egingo dute institutuko garbitzaileak:

- Ikastetxean babeserako eta garbiketarako erabiltzen ari garen materialak hauexek dira: maskara kirurgikoak eta FFP2, babeserako pantailak, eskularruak, hidroalkoholdun gela, xaboia, paperezko botatzeko zapiak, manparak eta infragorri termometroa.
- Erabilitako gelen garbiketa gutxienez egunean behin egingo da, mahai, aulki, tresna eta lan-ekipoen gainazalak garbitzea barne.
- Egunean zehar bainu gelak hiru aldiz garbituko dira; lehenengoz, atsedenaldiaren aurrean, bigarrenaz, atsedenaldiaren ostean eta, hirugarrenaz, azken saioak amaitu ondoren. Pasabideak, heldulekuak, armairuak, barandak eta abar gutxienez birritan garbituko dira; goizean eta arratsaldean.
- Arreta berezia jarriko zaie erabilera erkideko guneei eta ukipen-azalera ohikoenei, hala nola ate, mahai, altzari, eskubanda, zoru, telefono, pertxa eta antzeko beste elementu batzuei.
- Garbiketa-neurriak langileen gune pribatuetara ere zabalduko dira, hala nola atsedenekuetara, aldageletara, armairuetara, komunetara, sukaldeetara (bertan, ontzitegi osoa, mahai-tresnak eta beirateria garbituko dira ontzi-garbigailuan, baita erabili ez baina ikasleen eskuekin harremanetan egon ahal izan dena ere).
- Era berean, partekatutako lanpostuak garbitu eta desinfektatuko dira lanaldia amaitzean, garbiketa-produktuak jardun dezan utziz, eta arreta berezia jarriko zaie altzariei eta manipulatu daitezkeen beste elementu batzuei, batez ere langile batek baino gehiagok erabiltzen dituen. Erabilera partekatuko ordenagailuen teklatuaren, saguaren eta pantailaren gainazala garbitzeko gel desinfektatzailea izango dugu eskura ekipo bat erabiltzen amaitzean azken erabiltzaileak garbitu ahal izateko.
- Prestatu berri den lixiba diluzio gisa (1:50) edo osasun-agintariek baimendutako eta erregistratutako birizida jardura duten desinfektatzaile gisa erabiliko dira desinfektatzaileak. Produktu horiek erabiltzean, beti errespetatuko dira etiketetan eta segurtasun-fitxan jasotako oharrak.
- Garbiketa bakoitzaren ondoren, erabilitako materialak eta babes-ekipoak modu seguruan botako dira, eta gero eskuak garbituko dira.
- Paperontziak garbi eta alboko materialekin bilduta daudela zaindu behar da, ustekabeko kontakturik ez izateko.

Instalazioetan maiz aireztatzeko lanak egin behar dira. Gelak aireztatuko ditugu gutxienez bost minutuz (hobe hamar minutuz, aretoa aldezturik okupatuta bazegoen) lanaldiaren hasieran, amaitzean eta, ahal den guztietan, eskolen artean.

Baldintza meteorologikoek eta eraikinak ahalbidetzen dutenean, leihoak ahalik eta denbora gehien irekita edukiko ditugu.

KONTINGENTZIA PLANA COVID-19

2020-21 ikasturtea

Espazioen aireztapen naturala areagotuko dugu, korronteak sortuz, barruan airea berritzen laguntzeko. Aireztapen gurutzatua erabiliko da ahal den guztietan, hau da, gelako atea irekita eta gelako urrunen dagoen leihoa irekita aldi berean.

Hondakinen kudeaketa: Gomendagarria da langileek eta ikasleek eskuak lehortzeko edo "arnas etiketa" betetzeko erabiltzen dituzten erabili eta botatzeko zapiak zakarrontzietan botatzea, poltsa itxiarekin edo estalkidun edukiontzi babestuekin, eta, ahal dela, pedal bidez eragitea.

Higiene pertsonaleko material oro (maskarak, latexezko eskularruak, etab.) hondar frakzioan utzi behar da (berezita jaso ondoren lortzen den etxeko hondakinen multzoa).

Ikasle edo langile batek sintomak baditu ikastetxean dagoen bitartean, zapiak edo erabilitako beste produktu batzuk utzi dituen edukiontzia isolatu beharko da. Zabor-poltsa hori atera eta bigarren zabor-poltsa batean jarri beharko da, itxiturarekin, gainerakoan zatian uzteko.

5. KASUEN KUDEAKETA

Norberaren erantzukizunari helduz, etxean bertan tenperatura hartzea gomendatuko da ikastetxera joan aurretik. Ez dira joango COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak (sukarra, eztarriko mina, eztula eta aire-gabeziaren sentrazioa, usaimenaren eta dastamenaren zentzua galtzea,...) dituzten ikasleak, irakasleak eta bestelako profesionalak, ez eta COVID-19 diagnostikoaren bidez isolatuta daudenak edo etxean berrogeialdian daudenak ere, sintomak dituen pertsonaren batekin kontaktu estua izan dutelako edo COVID-19 diagnostikatuta daudelako.

Sintomak institututik kanpo hasten badira, ez joan ikastetxera eta deitu zure osasun-zentzora edo larrialdietara (sintomatologiaren larritasunaren arabera). Hala badagokio, Euskal Osasun Zerbitzuak ezarriko ditu jarduteko jarraibideak.

Lurraldeko mediku-zerbitzuari jakinaraziko zaizkio zure sintomak, egoeraren berri izan dezan eta dagozkion kudeaketak egin ditzan.

Ikastetxeko zuzendaritzari ere jakinarazi behar da.

Ikastetxean COVID-19rekin bateragarria den sintomatologia duten pertsona guztiek horretarako prestatutako isolamendu-gela batera, institutuko sarrera-atarian dagoen bisita gelara, joango dira (maskara jarrita duela), eta ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko diote. Hark Prebentzio Zerbitzuko mediku arloari jakinaraziko dio, dagozkion jarraibideak jaso ditzan.

Ikaslea bada, berarekin doan pertsonak distantziaren eta maskaren neurriak gordeko ditu. Ikastetxeko zuzendaritzak edo COVID19 prebentzio arduradunak familiarekin

KONTINGENTZIA PLANA COVID-19

2020-21 ikasturtea

harremanetan jarriko dira, etxera eramateko. Familia harremanetan jarriko da lehen mailako arretako medikuarekin, argibideak jarraitzeko.

Langilea Hezkuntza Sailekoa bada, isolatu egingo da (maskara eta guzti), eta bere etxera joango da, ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi ondoren. Zuzendaritza hori laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko medikuntza arloarekin harremanetan jarriko da berehala.

Beste enpresa bateko edo Administrazio Orokorreko langilea bada, ikastetxeko zuzendaritzari, dagokion prebentzio-zerbitzuari eta Hezkuntzari berari jakinaraziko die, eta haren jarraibideak beteko dira.

Sintomak dituen langileak lanpostua utzi behar du osasun-profesional batek bere egoera medikoa aztertu eta lanera bueltatzeko adierazten dion arte.

Larritasun- edo arnasteko zailtasun-sintomak izanez gero, 112 zenbakira deitu behar da.

Kasuaren emaitza diagnostikoa lortu arte, ez da kontaktu estuei buruzko ekintzarik adieraziko, eta irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du, higiene-neurriak zorrotzuz. Kasua berresten bada, kontaktuen azterketa egingo da hezkuntza-ingurunean eta hezkuntza-ingurunetik kanpo, kontaktuak ezarrita dagoenaren arabera identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena eginez.

Kasuren bat gertatuz gero, kontaktuen miaketa azkar eta errazagoa egin ahal izateko, eta era horretan azterketa eta jarduketa errazteko, ikastetxeak, modu antolatuan eta erraz eskuratzeko moduan honako informazio hau jasoko du:

- Gela, tailer edo laborategi bakoitzeko ikasleen zerrenda, bakoitzaren kokalekua (non esertzen diren), egiten diren jardueren arriskuaren balorazioa (kontaktu edo hurbiltasun handiagoa duten tailer edo praktiketan parte hartzea), eta hauen harremanetarako telefono zenbakiak (mugikorra), azkar jardun ahal izateko, bai eta kasu bat agertzean kontaktu estuak lortzea errazten duen informazio guztia ere.
- Jantokiko txandako ikasleen zerrenda eta kokalekua ezagutzea (non esertzen diren).
- Autobus berean garraiatuak izan diren ikasleen zerrenda, eta zein eserlekutan jartzen diren.
- Ekintza osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen badira, taldeetan dauden ikasleen zerrenda.

Institutuak erreferentziazko Erakunde Sanitario Integratu (ESI) bat izango du, eta Osasun Publikoak koordinatutako harremana izango du harekin. ESI bakoitzak erreferentziazko herrietako ikastetxeen laguntza-beharrak koordinatuko ditu.

6. KOORDINAZIOA

Kontingentzia Plana honen garapenerako eta pandemiaren bilakaera dela eta hartu behar izango diren neurrien koordinazioa hiru mailatan eramango du aurrera.

Lehenengo mailan OOGko Laneko Arriskuen Prebentziorako Batzordea egongo da, COVID-19 lantalde modukoa, oinarrizko printzipioak betetzen direla bermatzeko eta hezkuntza-komunitate osoak horren ezarpenaren berri izateko. Batzorde hau gutxienez hiruhilabetekoan behin batuko da. Laneko Arriskuen Prebentziorako Batzordearen partaideak hauexek izango dira:

- institutuko zuzendaria
- institutuko idazkaria
- Institutuko lan-arriskuen arduraduna (COVID-19 arduraduna da, aldi berean)
- OOGko bi irakasle
- OOGko guraso bat
- OOGko ikasle bat

Bigarren mailan COVID-19 Jarraipen Batzordea egongo da pandemiarekin zerikusia duten estamentuekin harremanetan jartzeko eta haiekin lankidetzan aritzeko. Batzorde hau krisi garaian edota agintariek horrela agintzean soilik batuko da. Jarraipen Batzorde horren partaideak hauexek izango dira:

- institutuko zuzendaria
- institutuko idazkaria
- institutuko lan-arriskuen arduraduna (COVID-19 arduraduna da, aldi berean)
- OOGko kide bat
- Berritzeguneko erreferentea
- Ikuskaria
- osasun publikoko lehen mailako arretako ordezkari bat
- udaletxeko gizarte-zerbitzuko ordezkari bat.

Hirugarren mailan, amaitzeko, institutuko lan-arriskuen arduraduna COVID-19rekin lotutako alderdietarako erreferentziazko arduraduna izango da egunerokoekin lotutako lanketaz arduratzeko. Prebentzio Zerbitzuarekin eta segurtasun- eta osasun-laguntzailearekin ere harremanetan egongo da.

7. PARTE-HARTZEA, KOMUNIKAZIOA ETA PRESTAKUNTZA

Institutuko Guraso Elkartearen eta familien parte-hartzea sustatuko dugu, neurriak behar bezala ezartzeko orduan informazioa eta aliantzak errazago transmititzeko.

Ikasleen parte-hartzea funtsezkoa izango da prebentzio- eta higiene-neurriak sustatzeko, ikasle laguntzaileen bidez, ikasle bitartekarien bidez, AGENDA 30eko talde

KONTINGENTZIA PLANA COVID-19

2020-21 ikasturtea

sustatzailearen bitartez edota berdinen arteko hezkuntza bultzatuz, eskolako osasuneragile komunitarioaren papera bereganatuz.

Zuzendaritza-taldeak bermatuko du ikastetxean ezarritako jardura protokoloei eta prebentzio-, higiene- eta osasun-sustapeneko neurriei buruzko informazioa hezkuntza-komunitate osoak jasotzen duela.

Prebentzio- eta higiene-neurriei buruzko informazioa emango zaie ikastetxeko langileei, eta trebetasunak eskuratzen lagunduko zaie. Neurri horiek, era berean, komunikazioa erraztuko diete hezkuntza-komunitateko gainerako langileei.

Osasunerako hezkuntzako jarduerak diseinatu eta ezarriko ditugu, COVID-19ren aurkako prebentzio-, higiene- eta osasun-sustapeneko neurriak barne, ikasleak hezkuntza-komunitatearen osasuna hobetzeko eragile aktibo izan daitezen.

Ikastetxean Plan honetan jasotako neurri guzti hauek betetzeko, osasunerako hezkuntza-estrategiak garatuko ditugu eta irakasle-taldeak zer espaziotan lan egin daitekeen baloratuko du, hala nola tutoretzetan edo zeharka beste irakasgai batzuen edukian edo diziplinarteko proiektuetan sartuta.

Ikasleentzako kartel eta seinale atseginak, halaber, jarriko ditugu, neurriak errazago bete daitezen. Honako hauei buruzko informazio-kartelak ipiniko ditugu ikastetxean:

- Eskuen higiene egokia eta arnas higiena (eztul eta doministiku egiteko modua).
- Gutxienez 2 metroko segurtasun-distantzia.
- Transmisioa murriztu, kontaktuak saihestu.
- NBEak erabilera.

Era berean, egunero denbora bat emango dugu higiene- eta garbiketa-jarraibideak gogoratzeko.

OOGko Laneko Arriskuen Prebentziorako Batzordeak onartu zuen, 2020ko abenduaren 17an egindako bileran.

Abanto-Zierbena, 2020ko abenduaren 17a

8. ERANSKINAK

I. ERANSKINA: HIGIENE NEURRI OROKORRAK

II. ERANSKINA: JARDUERA FISIKO ARAUTUARI BURUZKO ARAUDIA

III. ERANSKINA: JANTOKIA ERABILTZEARI BURUZKO ARAUDIA

IV. ERANSKINA: IKASLEENTZAKO ARAUDIAREN LABURPENEA

I. ERANSKINA: HIGIENE NEURRI OROKORRAK

HIGIENE NEURRI OROKORRAK

- Maskararen erabilera derrigorrezkoa da institutuaren eremu osoan, bai eraikinean, bai kanpoan. Beste pertsonekin gaudenean eta bakarrik gaudenean, beti.
- Eskuetako higiena da koronabirusaren aurkako infekzioa prebenitzeko eta kontrolatzeko neurri nagusia. Beraz, garbitu behar ditugu eskuak maiz.
- Eskuen higiena errazteko, ez erabili eraztunik, eskumuturrekorik edo bestelako apaingarririk. Eskumuturreko erlojua erabiltzen baduzu, kendu eskuak garbitzeko unean, behar bezala garbitu ahal izateko.
- Garbitu 20 segundoz gutxienez, eta, bereziki, bazkaldu aurretik eta ezgul edo doministiku egitean nahi gabe eskua jartzen duzunean.
- Ez ukitu txorrotak eskuak garbitu ondoren ixteko, itxi lehortzeko erabili duzun paperarekin, eta, gainera, saiatu paper horrekin berarekin garbitzen konketen gainetan utzitako ur-zipriztinak edota xaboia.
- Ezgul edo doministiku egiten baduzu estali ahoa eta sudurra paperezko musuzapi batekin, eta gero bota zakarrontzira. Ez baduzu paperezko zapirik, ezgul edo doministikurik besoaren gainean, ukondoaren barneko angeluan, eskuak ez kutsatzeko.
- Ezgul edo doministiku egiten baduzu eta eskuak estaltzeko erabiltzen badituzu, ez ukitu aurpegia, sudurra edo begiak eta garbitu eskuak berehala.
- Ez agurtu eskua edo bi musu emanez, agurtzeko hitzekin edo beste keinu batzuekin nahikoa da.
- Lagundu zure lantokia garbitzen, libre utzi behar dira lan-mahaietako gainazalak eta lan- eremuan egon daitezkeen beste azalera komun batzuk, garbiketako langileek errazago garbitu ahal izateko. Horretarako sartu zure lanerako materialak (folioak, boligrafoak, grapagailua, liburuak, etab.) kartoizko kutxa bakar baten barruan.
- Paperaren erabilera dagokionez, esku desberdinetatik pasatu ahal izan den papera manipulatzeko duenak jakin behar du eskuak sakon garbitu behar dituela papera maneiatu ondoren (noizbehinka erabil daitezke gel hidroalkoholikoak, baina kontuan izan behar da gelarekin lau zapabost aldiz garbitu ondoren garbiketa bat egin behar dela urarekin eta xaboiarekin), eta papera erabiltzen den bitartean prebentzio-neurri nagusia aurpegia ez ukitzea dela, hau da, begiekin, ahoarekin eta sudurrarekin une oro ez ukitzea eskuetako higiena egon arte. Lan-prozedurak ahalbidetzen badu, papera bi egun "lo egiten" utz daiteke, arreta-neurri gisa.
- Lan egiteko tresnak eta materialak partekatzea saihestu beharko da. Pertsona anitzek erabiltzekoak badira, erabilera bakoitzaren ondoren garbitu beharko dira: telefonoa, fotokopiagailua, etab.

II. ERANSKINA: JARDUERA FISIKO ARAUTUARI BURUZKO ARAUDIA

ARAUTUTAKO JARDUERA FISIKOARI BURUZKO ARAU OROKORRA:

- Ikasleak etxetik etorriko dira Gorputz Hezkuntzarako beharrezkoa duten arroparekin, modu honetan eta saio hasteko orduan, motxila uztea, edo beharrezkoa den arropa eranztea besterik ez dute egingo.
- Ariketa burutzeko tokietaraino eta irakasleen jarraibideak entzuteko ikasleek musukoa mantendu beharko dute.
- Ariketak hala eskatzen duenean bakarrik (irakasleak baimena emanda) musukoa kenduko dute ikasleek.
- Posiblea den heinean kaleko ekintzak nagusituko dira praktikak burutzerako orduan
- Banakako ariketak landuko dira nagusiki segurtasun tarte mantenduz.
- Ez da kontaktu-ariketarik egingo taldekatzeak egiten direnean (borrokak, elkar heltzeko jarduerak, etab.)
- Talde ariketa burutzen denean musukoa erabiliko da eta ariketa ez da intentsitate altukoa izango.
- Talde ariketarik burutzean ikasturtean zehar taldekatze berdinak erabiliko dira kutsatzerik balego jarraipen errazagoa izateko.
- Talde kirolak lantzeko banakako mugimendu analitikoak (saskibaloia sarrerak, eskubaloiko fintak, boleiboleko sakeak, etab.) gailenduko dira eta kontaktua dakarten mugimenduak saihestuko dira. Mugimendu kooperatiboak (paseak, hormak, etab.) segurtasun-distantzia mantenduz egingo dira beti. Kontaktua egon beharrekotan musukoa erabiliko da beti.
- Aldagelak talde bakarrak erabiliko ditu aldi berean eta ikasleak ezingo dira dutxatu.
- Bi taldek aldi berean aldagelen beharra balute talde bakoitzak aldagela bakarra erabiliko luke motxilak uzteko baita aldatzeko ere. Txandaka sartuta neskak eta mutilak aldagela berdinean naiz eta tarte ezberdinetan.
- Aldageletan eskuoihal hezeak erabilia garbituko da bakoitza eta kamiseta aldatu. Hauek izanik aurten eskatuko diren higiene ohiturak.
- Aldageletan bankuetako espazio mugatuko da norberak bere espazioa edukitzeko aldatzerako orduan. Bi txanda eginez beharrezkoa balitz aldageletan pilaketarik egon ez dadin.
- Ikasle guztiek saioa hastean eta amaitzean eskuak gelarekin garbituko dituzte.
- Materiala pertsonala izango da, eta saioa amaitzean desinfektatu egin beharko da

III. ERANSKINA: JANTOKIA ERABILTZEARI BURUZKO ARAUDIA

ESKOLAKO JANTOKIARI BURUZKO ARAU OROKORRA:

1. JANTOKIKO ARDURADUNEN ESANEI JARRAITU BEHAR ZAIE BETI.
2. ARAUDI OROKORRA BETE BEHAR DA BETI, ikastetxetik egindako joan-etorriei dagokienez.
3. Jantokira sartzean, puntualtasuna, betiere baten ilaran eta distantziak mantenduz.
4. Maskara nahitaezkoa da beti, bazkarian izan ezik.
5. Gutxienez metro eta erdiko tarte mantentzea beti.
6. Taldeetan ez egotea.
7. Eskuak ondo garbitu jan aurretik.
8. Bazkarian ez altxatzea inoiz esleitutako lekutik.
9. Jantokiko mahaiak banakakoak dira, lurlean markekin seinaleztatuta, jankideen arteko distantzia egokia mantentzeko. Txanden artean behar bezala desinfektatuko dira.
10. Mahaikide bakoitzak zenbaki bat izango du, dagokion mahai eta apala bakarrik erabiltzeko.

JANTOKI-ZERBITZUAREN ANTOLAKUNTZA

COVID19 dela eta, jantokiko 2 txanda egongo dira, bata 14:30ean, garraioa duten mahaikideentzat batez ere, eta bestea 15:15ean edo, gainerako mahaikideentzat.

JARRAITU BEHARREKO PROTOKOLOA:

1. Jantokiko esparrura sartzea, baten ilaran, puntualtasunez, edo jolastokira/kiroldegira, esleitutako txandaren arabera.
2. Motxilak eta abar apaletan uztea, esleitutako lekuan.
3. Eskuak txukun eta banan-banan garbitzea.
4. Officeko langileek zerbitzatutako janaria duen erretilua jantokiko mahaietan jasotzea, eta esleitutako mahaira sartzea.
5. Dagokion mahaietan eserita BAKARRIK kendu ahal izango dute maskara. Ezin da baimenik gabe jaiki bere lekutik bazkaltzen amaitu arte. Jaten den bitartean giro lasaia eta isiltasun erlatibokoa mantentzea gomendatzen da. Edozein eskaera gizalegez egingo da.
6. Edaria arduradunek zerbitzatuko dute.
7. Bazkaria amaitzean, dena erretiluan jasota utziko da, jan den mahai indibidualaren gainean.
8. BAIMENA EMATEN DENEAN, ETA BETIERE MASKARA TXUKUN JARRITA, ordenan irtetea.
9. Eskuak soluzio hidroalkoholikoaz desinfektatzea distantziak eta ilaran mantenduz, motxila-bilketa eta eskola-esparrutik irtetea.

KONTINGENTZIA PLANA COVID-19

2020-21 ikasturtea

IV. ERANSKINA: IKASLEENTZAKO ARAUDIAREN LABURPENA

IKASLEENTZAKO ARAUDIAREN LABURPENA

Kontingentzia Plana honen xedea da **pertsonen segurtasun eta osasun-baldintzak bermatzea institutuko jarduera guztiak garatzeko.**

Prebentzio-neurriak lau ardatzetan laburbiltzen dira: **maskara beti erabiltzea, ziurtasun distantzia beti mantentzea, eskuak sarri garbitzea eta gela egokiro aireztatzea.**

Pertsonen pilaketak saihesteko hauexek izango dira neurri zehatzak:

- Ikasleen sarrerak eta irteerak mailakatuak izango dira, eta ikastetxerako sarbidea gaituko dugu ikasleak iristen diren heinean.
- DBHko 1., 2. eta 3. mailako ikasleak sarrera nagusitik sartuko eta aterako zarete.
- DBHko 4. mailako ikasleak, Batxilergoko ikasleak eta Heziketa Ziklokoak ate gorriko sarreratik sartuko eta aterako zarete.
- Korridoreetan eta eskaileretan oinezkoentzako ibilbideak ezarri ditugu.
- Korridoreetan eta eskaileretan ezin izango gara inoiz geldirik egon.
- Geletara sartzean atea irekitzeko ikasleen arduraz oinarritutako sistema ez dugu erabiliko. Geletako atea, ondorioz, itxita baina zerraila jarri gabe egongo dira goizean, gela aldaketetan, atsedendietan eta jardunaldian amaitzean.
- Segurtasun-tartea mantenduko dugu korridoreetan, eskaileretan, atarteetan eta abarretan.
- Talde eta maila guztietako ikasleak ezin izango zarete beren gelatik irten saio-aldaketetan.
- Ikasleek talde-gelatik gela batera irten behar duzuen guztietan dagokion irakaslearekin joan eta etorriko zarete.

Ziurtasun distantzia mantentzeko hauexek izango dira neurri zehatzak:

- Oro har, segurtasuneko pertsonen arteko distantzia 1,5 metrokoa izango da, gutxienez, ikastetxeko pertsonen arteko interakzioetan.
- Ez ditugu aurreikusten ikastetxetik kanpo gava ematea dakarren jarduerarik, ikastetxeko kirol-ekitaldirik, ospakizunik edota jairik.
- Atsedendietan ikasleek ezin izango dituzue bainugelak erabili. Atzeko patioaren ate gorriaren alboan dauden bainugelak erabiliko dituzue atsedendietan, era ordenatuan, banan-banan eta kanpoko aldean itxaron behar denean ziurtasun distantzia mantenduz.
- Eskailerak igotzean edo jaistean, aurretik igotzen edo jaisten ari den pertsonarekin lau maila inguru uztea gomendatzen da. Eskaileretan ez gara inoiz geldirik egongo.
- Ikasle bakoitzak eserleku bat izango duzue esleituta eta beti leku berean egon behar izango duzue eserita. Eserleku horren kokapena lurrean egongo da seinalatuta eta saio guztien hasieran eta amaieran mahai bakoitzak lurrean seinalatutako lekuan egon behar izango du.

Garbitasuna eta osasuna mantentzeko hauexek izango dira neurri zehatzak:

- Institutura etorri baino lehen tenperatura neurtu behar izango dugu derrigorrez etxean. Sukarra izanez gero (37° C baino altuago) ezin izango gara institutura etorri.
- Beste sintomaren bat badaukagu (eztarriko mina, eztula edota aire-gabeziaren sentazioa) ez dugu etorri behar institutura eta deitu behar izango dugu osasun-zentrorra.

KONTINGENTZIA PLANA COVID-19

2020-21 ikasturtea

- Ikasle guztiak nahitaez maskara erabili beharko duzue espazio guztietan eta une oro. Maskara nahitaez erabili beharko duzue, nahiz eta eserita egon eta 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia gorde.
- Ikasle bakoitzak zuen maskara ekarri behar izango duzue egunero.
- Gela bakoitzak eskuak desinfektatzeko gel hidroalkoholkoa eta paperezko botatzeko zapiak izango ditu.
- Komeni da noizean behin eskuak urez eta xaboiz garbitzea.
- Eskuak garbitzen duzunean 20 segundoz gutxienez egin, txorrota papera erabiliz ireki eta itxi, eta, gainaldea busti bada, lehortu egin.
- Ikasleek bainugelak jardunaldiaren zehar erabili ahal izango duzue, era ordenatuan, banan-banan eta dagokion irakaslearen baimenarekin.
- Komunak banaka erabiliko dira eta erabiltzean itxaron behar izatekotan, ziurtasun distantzia mantenduko dugu (1,50 m).
- Komuniket irten baino lehen, eskuak garbituko ditugu.
- Eztul edo doministiku egiten baduzu besoaren gainean egin, ukondoaren barneko angeluan, eskuak ez kutsatzeko.
- Ezin izango dugu institutuaren barruan jan edo edan, ez bada horretarako espreski prestatutako gela batean. Atsedendietan jolastokian gaudenean jan edo edan ahal izango dugu atsedendiak irauten duen bitartean, eta betiere segurtasun-distantzia mantenduz.
- Bainura joaten garenean edan ahal izango dugu ura, baina inoiz ez zuzenean komunetako txorrotetatik. Botila edo edalontzi pertsonal bat erabiliko dugu beti, etxetik ekarri beharko duguna eta partekatu ezin izango duguna.
- Eskoletan, irakaslea bertan badago eta haren baimenarekin soilik edan ahal izango dugu ura. Jolastokiko iturriko ura edan ahal izango dugu atsedendian, betiere hodia ukitu gabe.
- Ikasleentzako fotokopien zerbitzurik ez da egongo.
- Ikasleek ezin izango dituzue dutxak erabili.
- Atsedendietan liburutegia itxita egongo da. Elkargunea eta polikiroldegia irekiko dugu atsedendietan.
- Jolasaldietan ezin izango duzue kontaktu-jolasik egin.
- Lan-material, mahai, ordenagailu, eta abar bereziak erabiliko dituzue. Boligrafoak eta gainerako eskola elementuak partekatzea ere saihestu behar duzue. Partekatu behar izanez gero, garbiketa sakona ziurtatuko duzue erabilera bakoitzaren aurretik.
- Eskaileretako eskudelak ezin izango ditugu erabili eta ez ukitzeko babes zinta jarriko ditugu.
- Gelak aireztatuko ditugu gutxienez bost minutuz lanaldiaren hasieran, amaitzean eta, ahal den guztietan, eskolen artean. Baldintza meteorologikoek ahalbidetzen dutenean, leihoak ahalik eta denbora gehien irekita edukiko ditugu.